

Gobernatza kooperatiboa aztergai Kooperatibagintzan Topaketaren 5. edizioan

2017/06/26

Uztailaren 7an egingo dituzte, Eskoriatzako campusean, Kooperatibagintzan Topaketaren 5. edizioa. Oraingoan, gobernatza kooperatiboa jorratuko dute Lanki Kooperatibagintzaren Ikertegiak antolatutako jardunaldian. Gai hori lantzeko, beste batzuen artean, bilkuran parte hartuko dute Erresuma Batutik etorritako bi ikertzailek: Johnston Birchall eta Cliff Mills.

Gobernatza da erakundeen baitan erabakiak hartzeko bideak aztertzen dituen jakintzagaia. Eta, gobernatza kooperatiboa izan da, hain zuzen ere, Birchall Stirling Unibertsitateko irakasle ohiaren ikergai nagusienetako bat. Birchall urteetan Erresuma Batuko gobernuaren aholkulari izan da. Besteak beste, 2014. urtean gobernatza aztertu zuen munduko 60 kooperatiba handien baitan, eta ondorioak bildu zituen *The Governance of large co-operative businesses* idazlanean. Eskoriatzako topaketan, Birchallek azalduko ditu ikerketa horren ondorio nagusiak.

Bestalde, Cliff Mills ikertzaileak eta Birmingham-ko Anthony Collins abokatu bulegoko kideak jorratuko ditu gobernatza kooperatiboaren erronei aurre egiteko bide berri posibleak. Mills-ek 20 urteko esperientzia du kooperatibetako konstituzio dokumentuak eta araudiak sortzen. Bere ikerketa ildo nagusiak izan dira gobernatza, jabetza eta enpresa sozialak.

Egitaraua

- **09:45-10:00** Izen ematea.
- **10:00-10:10** Ongi etorria. Bixente Atxa (Mondragon Unibertsitateko errektorea), Sebas Zurutuza (Gipuzkoako Foru Aldundia), Alfredo Ispizua (Eusko Jaurlaritza) eta Ainara Udaondo (Lanki Kooperatibagintzaren Ikertegia).
- **10:10-10:40** *Gobernatza Munduko 60 Kooperatiba handienetan: etorkizunerako erronkak.* Johnston Birchall (Stirling University. Eskozia).
- **10:40-10:55** Partehartzaileen galderak.
- **10:55-11:25** *Kooperatiba erresilenteen kudeaketa: kompetentzietan oinarritutako eredu bat.* Cliff Mills (Anthony Collins Solicitors. Birmingham).
- **11:25-11:40** Partehartzaileen galderak.
- **11:40- 12:20** Talde dinamika.
- **12:20- 12:30** Atsedena.
- **12:30- 13:00** Lanki Kooperatibagintzaren Ikertegiak egindako Gobernatza diagnosiaren aurkezpena Mondragonen testuinguruan.
- **13:00-13:30** *Lanaldiaren sintesia: gobernatza kooperatiboaren etorkizuneko erronkak.* Iñigo Iñurrategi (Mondragon taldea).
- **13:30** Luntxa.

Harremanetarako eta Kooperatibagintza Topaketaren 5. ediziori buruzko informazioa jasotzeko: Mainer Iriarte.

- miriarte@mondragon.edu
- 637 38 00 48



Aurtengoa izango da topaketaren 5. edizioa.